

TALDEA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK LANBIDE ARAUTUETAN JARDUTEKO GAITASUNA EMATEN DUTEN BILBOKO INGENIARITZA ESKOLAKO MASTERRETAKO NAHITAEZKO IRAKASGAJETAN

Nahitaezko irakasgaietan taldea esleituko da sarrera **notaren arabera** ikasle berrientzat, eta masterreko **espedienteko batez besteko notaren arabera**, prestakuntza osagarri diren irakasgaiak barne, gainerako ikasleentzat.

Lehendabizi, ikasle berriak matrikulatuko dira, eta gero gainerakoak.

ESPEZIALITATEKO PLAZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK: TELEKOMUNIKAZIO INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE MASTERRA

ESPEZIALITATEA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

Ikasle bakoitzak espezialitateak eskatuko ditu, bere interesen arabera ordenatuta.

Masterreko Batzorde Akademikoak ikasle bakoitzak eskatutako espezializazioak ordenatuko ditu, 1etik 3ra (1, lehentasun handiena; 3, lehentasun txikiena), oinarri hartuta graduan egindako irakasgaien eta eskatutako espezialitatearen arteko parekotasuna.

1 Lehentasuna:

- Bilboko Ingeniaritza Eskolako Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako ikasleak izanik, masterreko espezialitateari dagokion espezialitatea egin duten ikasleak:

TELEKOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAREN INGENIARITZAKO GRADUAN EGINDAKO ESPEZIALITATEA	1 LEHENTASUNA MASTERREKO ESPEZIALITATE HAUETAN:
TELEKOMUNIKAZIO SISTEMAK	TELEKOMUNIKAZIO SISTEMAK
ELEKTRONIKO SISTEMAK	ELEKTRONIKO SISTEMAK
TELEMATIKA	INGENIARITZA TELEMATIKOA

2 Lehentasuna:

- Bilboko Ingeniaritza Eskolako Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako ikasleak izanik, masterreko espezialitateari dagokion espezialitatea egin ez duten ikasleak.

3 Lehentasuna:

- Telekomunikazio Ingeniaritzako Unibertsitate Masterreko ikasleak izanik, prestakuntza osagarrietako kreditu guztiak eginda ez dituzten ikasleak.

Plazak esleitzeko hurrenkera Espezialitate bakoitzaren barruan:

1. Fasea:

Espezialitate bakoitzean **1 lehentasuna** daukaten ikasleen artean banatuko dira plazak. Ikasle horiek ordenatzeko irizpidea: masterreko espediente akademikoaren arabera.

2. Fasea:

Espezialitate bakoitzean hutsik geratu diren plazak **2 lehentasuna** daukaten ikasleen artean banatuko dira; ikasle horiek aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideen arabera ordenatuko dira.

3. Fasea:

Espezialitate bakoitzean hutsik geratu diren plazak **3 lehentasuna** daukaten ikasleen artean banatuko dira; ikasle horiek ordenatzeko irizpidea izango da prestakuntza osagarrietan gainditu gabe daukaten kreditu kopurua. Zenbat eta kreditu gutxiago falta, lehentasun handiagoa; berdinketa egonez gero, bi espedienteak kontuan hartuta batez besteko nota haztatu hobea daukanak izango du lehentasuna.